



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

ARABAKO ERRIOXAKO ETA ARABAKO TXAKOLINEKO 2018-2019ko MAHASTIZAINZA KANPAINAREN AZKEN TXOSTENA

ARABAKO ERRIOXA

Urriaren 15ean amaitu da ofizialki uzta bilketa Errioxako JDKn. Kanpaina hori fruituaren osasun apartagatik gogoratuko da.

2018-2019ko mahastizaintza kanpainari hasiera emateko, tenperatura goxoak eta prezipitaziorik eza egon ziren udazkenean eta negu hasieran. Urtarrilak aurrera egin arte ez ziren iritsi borrhaskak, non halako sorta batek ura eta elurra ekarri baitzituen, eta horrek tenperatura jaitsarazi zuen neguko berezko erregistroetara. Baina perturbazio atmosferiko horiek ez zuten asko iraun. Neguko eguraldi hori apenas luzatu zen otsaileko lehenengo egunetara arte, ordutik aurrera tenperatura igo baitzen sasoi horretan egon ohi dena baino askoz gehiago, eta ia ez zen prezipitaziorik egon. Otsaila eta martxoan ere ez zen prezipitazio aipagarriarik egon, eta tenperaturak altuak izan ziren, ohi ez bezala, garai horretarako.

Apirilaren hasieran hotza egon zen egun batzuetan, baina horrek ez zuen mahastietan eraginik izan, orduan hasten baita mugitzen. Hala ere, kazkabar gogor batek kalteak sortu zituen apirilaren 6an Arabako Errioxako mendebaldean, eta mahasti jakin batzuetan uztaren %25-30eko galera izan zen.

Apirilaren 13an, tenperatura 0 gradutik behera jaitsi zen Arabako Errioxako zenbait herritan, hala nola Eltziegion, Bastidan eta Eskuernagan. Kalteak normalean izotzak jotzen ez duen tokietan izan ziren, batez ere goi aldeetan. Bastida izan zen herririk kaltetuena, eta ernamuinen %20erainoko kalteak zenbatu dira, hala nola Gatzaga Buradonetik hurbilen dauden lekuetan. Cooperativa Solagüenek une horretan egindako kalkuluen arabera, kalteak bere bazkideen ardo ekoizpenaren %4koak izan ziren, eta datu oroko hori Bastida guztira zabal daiteke.

Apirilaren bigarren hamabostaldia bereziki beroa izan zen, eta prezipitazioek ez zuten konpentsatu kanpaina hasieratik metaturiko defizita. Maiatzean ere ez zen apenas prezipitaziorik izan, baina batez besteko tenperaturek behera egin zuten nabarmen, baina maiatzaren 6an izandako izozteak Arabako Errioxa guztian eragin zituen kalteak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Egun horietan Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren kalkuluen arabera, %5 eta %10 bitartekoa izan zen gertaera meteorologikoen ondorioz uztan izandako murrizketa.

Ekainean zehar tenperatura aldaketa nabarmenak izan ziren, zenbait eurite eta muturreko beroak izan baitziren uztaileko lehen egunetara arte. Hamabost egun fase kritiko batean egon ziren, polinizazio fasean, eta euria eta beroa aldi berean izateak mahatsaren mamitzean izan zuen eragina. Berehala nabaritu zen mamitutako mordo kopurua askoz txikiagoa zela urte normal batena baino, mordoak txikiak baitziren eta ia ez baitzuten ezer goiko aldean. Ezaugarri horiek, mahats mordoaren neurriak eta fisonomiak eragiten dute azkenean 2019ko uztako mahatsak zer kalitate eta kantitate izango duen.

Uztailean izandako ekaitzek euria ekarri zuten ia eskualde guztira, prezipitazio falta handiko negua eta udaberria izan eta gero. Hala ere, uztailaren amaieran eta abuztuaren hasieran izandako bero itogarriak mahastiaren garapena moteldu zuen. Izandako ekaitzek, ura bota zuten lekuetan, behar besteko ura utzi zuten, baina baita kazkabarra ere zenbait herritan, hala nola Bastida, Guardian, Lapueblan, Eltziegion ...

Abuztuan ez zen gorabehera handirik egon hilaren amaierara arte, muturreko beroak eta ekaitz boladak geratu ziren eta horrek eragin zuen kolore aldaketa, atzeratu samar bada ere, normaltasunez burutu izana. Abuztuaren 26an ekaitz gogor batek kazkabarra eta euria ekarri zituen zenbait lekutan, hain zuzen, 35 litro metro koadroko, eta horrek uztaz kezkatzea eragin zuen. Hasiera batean uste zenaren aurka, gertatu ziren egunak kontuan hartuta, Lapuebla eta Lantziegoko paraje zehatz batzuetako mahastietan izan ezik, kalteak nahikoa murriztuak izan ziren.

Heltzearen amaierako fasea ondo hasi zen, tenperatura epelekin egunez eta freskoekin gaez, eta euririk izan gabe. Irailaren erdialdera ekaitzen eta onddoak garatzeko baldintza egokien ondorioz, fruituak ordura arte zuen kalitate ezin hobea gordeko ez zuen kezka sortu zen. Zorionez, euriak geratu egin ziren eta, horri esker, uzta bilketa lasaia eta atzeratuz joan zena izan zen, arrisku gutxi egon zela eta hobetzeko aurreikuspenak ikusita, mahatsak aparteko osasuna erakusten baitzuen. Baina iraileko azken egunak eta urria ez ziren izan egokienak mahatsa behar bezala heltzeko, neurriz gorako beroagatik eta ia ez zelako anplitude termikorik egon egunaren eta gauaren artean. Hala ere, uzta bilketa kalitate egoera hobeezinarekin egin zen. Mahats bilketa atzeratuta izan zuten mahasti batzuek baino ez zituzten gaintitu nahi ziren azukre mailak, pasa bihurtzeko hastapenak ere agertuz.

Azkenean uzta laburra izan zen, 89 milioi kilo mahats inguru (%90, mahats beltza), 2018an baino %20 gutxiago eta kanpaina honetarako babestekoa den gutxienekoaren oso azpitik, gutxieneko hori ezarritako etekinen (mahats beltza: 6500 kg/ha eta mahats zuria: 9.500 kg/ha) %101ean zehaztu baitzen. Mahatsa erabat mamitu ez izanagatik eta gorabehera meteorologikoengatik (udaberriko izozteak eta kazkabarra) gertatu zen uzta murrizketa hori. Alde onari dagokionez, mordoaren fisonomiak, hau da, ale solte-solteak eta txikiak izateak, eragin du fruituak osasun ezin hobea izatea eta behar bezala heltzea. Hala eta guztiz eta gaur-gaurkoz, muztioa irakiten dagoelarik, esan dezakegu Errioxako ardoaren uzta urte handienetakoaren aurrean gaudela ikuspuntu kualitatibotik.

Muštioak eta jada bukatu diren lehenengo ardoek erakusten dituzten analisi parametroak (kolorea, taninoak, gradua, pH eta abar) ezin hobek dira eta uzta bikaina igartzen dute..

ARABAKO TXAKOLINA

Arabako Txakolinari dagokionez, negua ohikoa baino lehorrago eta beroagoa izan zen; udaberria, berriz, oso hotza eta prezipitazio gutxikoa, eta izan zituen izozte berantiarrak ere, zenbait mahastitan kalte aipagarriak sortu zituztenak.

Loratzea ekainaren erdialdean gertatu zen, behar bezalako mamitzearekin. Uztail eta abuztu lehorrak izan ziren Aiaraldean, baina ekaitz bakanen batek, batez ere abuztuan, kanpaina honetako ur eskasia arindu eta mahatsa behar bezala hazten eta garatzen lagundu zuen.

Mahatsaren heltzea goiz hasi zen, inolako gorabehera larririk gabe. Lasaitasuna izan da kanpaina honen ezaugarria, eta horri esker kualitatiboki ahalik eta gehien lortzeko baldintza aproposak izan dira uzta bilketan. Urriaren hasieran amaitutzat eman zen uzta bilketa, osasun egoera onean egon zen mahatsarena, eta ardo bereziak egiteko lurzatiren bat baino ez zen geratu bukatzeke.

Kopuruei dagokienez, eta Kontseilu Arautzailearen azken datuak falta ditugula, uzta bilketa joan den urtekoa baino zerbait txikiagoa izan dela uste da.

Ateratzen diren ardoek aroma nabarmenagoa izango dute, gradu handia eta neurrizko azidototasuna, eta horien guztien ondorioz, 2019ko uzta kalitate handikoa izango da Arabako Txakolinean.

Guardia, 2019ko urriaren 28a

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Nekazaritza Saila